

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN SERBITZUA – BEZAREN ETA ZERGA BEREZIAREN ATALA

30/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 27koa, honen bidez Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziek zergapetzen dituzten produktuen kontabilitatea eraman beharra betetzea arautzen da

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunaren 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga bereziak zerga itunduak dira eta araubide erkideko lurraldean indarrean dauden funtsezko eta erazko arau berberak aplikatzen zaizkie; horrek ez du inolaz ere eragozten foru aldundiek zerga berezien aitortpen-ereduak onesteko eta zerga horien kargak ordaintzeko epealdiak ezartzeko daukaten eskumena.

Bestalde, Ekonomia Itunaren lehenengo xedapen gehigarriak xedatzen du lurralde historikoetako erakunde eskudunek Ekonomia Ituna aplikatzeko behar diren xedapenak eman arte lurralde erkidean indarrean dauden arauak aplikatuko direla eta ordezkotuzen bidea izango direla.

Arabako Lurralde Historikoko erakunde eskudunek Premia Fiskalari buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Arau Dekretua onetsi zuten, zeinak Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea Arabako zerga-araudira egokitu baitzuen. Baina orain arte ez da arauketa hori arautegi bidez garatu; horrenbestez, aipatutako lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, ordezkotuzen bidea gisa aplikatu behar da lurralde erkide bakoitzean unean-unean indarrean dagoen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onetsitako Zerga Bereziei buruzko Erregelamendua.

Zerga Berezien Erregelamenduaren 50. artikulua, irailaren 28ko 1512/2018 Errege Dekretuaren laugarren artikulua aldatu duenak, xedatzen du fabrikazioaren gaineko zerga berezien araudiak eragiten dien establezimenduek zerga horiek zergapetzen dituzten produktuen kontabilitate bat eraman beharko dutela, baita, hala badagokio, haiek eskuratzeko behar diren lehengaiena ere.

Kontabilitatea eraman beharra betetzeko, kontabilitate liburuak erabiliko dira, organo eskudunak aginduta ezartzen diren epeen eta edukiaren arabera.

Artikulu horretan xedatutakoaren arabera, fabriken, gordailu fiskalen, jasotze gordailuen, biltegi fiskalen eta ozpin fabriken kasuan, zerga berezien kontabilitatea eraman beharra betetzeko euskarri informatikoko kontabilitate sistema bat erabiliko da, zerga administrazioaren egoitza elektronikoaren bitartez, kontabilitateko idazpenak egoitza horretan elektronikoki emanez.

Nolanahi ere, bulego kudeatzaileak, interesdunek eskatuta, baimena eman ahalko du ardoaren eta edari hartzituen egileek, haien urteko bolumena, titular diren establezimendu guztienak zenbatuta, 100.000 litrotik gorakoa ez bada, eta destilatzaile artisauek kontabilitatea eragiketarako aitortzeko ereduarekin batera telematikoki aurkeztuz edo paperezko liburu orridunak erabiliz betetzeko.

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien araudiak eragiten dien gainerako establezimenduek euskarri informatikoko kontabilitate sistema baten bidez edo paperezko liburu orridunen bidez eraman beharko dute betebeharra betetzeko. Establezimendu horiek ez dute kontabilitatea zerga administrazioaren egoitza elektronikoaren bitartez eraman behar, egoitza horren bidez eramatea hautatu ezean.

Foru Agindu honetan ezarritako betebeharrak betetzea errazteko, eta argiaren eta edari hartzituen egile baimendutako establezimenduei karga administratiboak murrizteko, aintzat hartu dira uztailaren 31ko 739/2015 Errege Dekretuak, mahastizaintza eta ardogintza sektoreko nahitaezko aitorpenei buruzkoak, xedatutako betebeharrak.

Kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko, web zerbitzuak edo zerga administrazioaren egoitza elektronikoa argitaratutako inprimaki elektronikoa erabili ahalko dira, dena organo eskudunak onartutako prozeduraren, epeen eta baldintzen arabera.

Bestalde, abenduaren 29ko 1075/2017 Errege Dekretuak, zergei buruzko zenbait erregelamendu aldatzen dituenak, Zerga Berezien Erregelamenduaren 44.5 artikulua aldatu zuen, kontabilitatea eramateko sistema berri hori bete behar duten zergadun guztiak eragiketen aitorpenak aurkezteko betebeharrak salbuesteko.

Kontabilitatea eramateko sistema berri horri esker, zerga administrazioak informazio nahikoa eta kalitatezkoa izango du zerga iruzurra kontrolatu eta prebenitzea errazteko, lehentasunezko helburuak izanik, eta zergadunei euren betebeharrak betetzen laguntzeko tresna bat emango die. Halaber, sistema berriarekin batera, kontabilitatearen arloan, berrikuntza teknologiko guztiak ezarriko dira, eta horrek erraztu egingo du informazioa bete eta administrazioari elektronikoki bidaltzea.

Bestalde, segurtasun juridiko handiagoa emango die behartutako operadore ekonomiko guztiei, Foru Agindu honetan zerga administrazioari eman beharko zaizkion idazpenen edukia definitu baita.

Azkenik, abenduaren 28ko 1512/2018 Errege Dekretuak xedatzen du, ondorioak 2020ko urtarrilaren 1az geroztik izanik, Zerga Berezien Erregelamenduaren 3., 11., 12., 13., 53., 55., 56.2, 56. bis, 60., 66., 71., 74., 75., 75. bis, 75. ter, 76., 77., 85., 87., 88., 96., 101., 103., 105., 106., 110., 115., 126. eta 129. artikuluetan xedatutako kontabilitateko betebeharrak kontabilitate liburuen bidez eta organo eskudunaren aginduz ezarritako baldintzetan beteko direla.

Hori betetz, Foru Agindu honek zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea eramateari dagozkion baldintzak, epeak eta prozedurak zehazten ditu, baita Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa medio kontabilitateko idazpenak emateko zehaztapan arautzaileak eta teknikoak ere.

Zeharkako Zergen Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATU DUT

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua

Foru Agindu honen helburua zerga berezien xede diren produktuen eta, hala badagokie, haiek lortzeko behar diren lehengaien kontabilitatea eramateari dagozkion baldintzak, epeak eta prozedurak arautzea da.

I. TITULUA

Kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez eramatea

2 artikulua. Behartutako subjektuak

Fabrikazioaren gaineko zerga bereziek zergapetzen dituzten produktuen kontabilitatea euskarri informatikoko kontabilitate sistema baten bidez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa medio, eraman behar dute fabriken, gordailu fiskalen, jasotze gordailuen, biltegi fiskalen eta ozpin fabriken titularrek, establezimendu horiek Araban daudenean, 13. artikulua xedatutakoa ere kontuan hartuz.

3. artikulua. Zerga bereziek zergapetutako produktuen kontabilitatearen xedea

1. 2. artikuluan adierazitako establezimenduen titularrek zerga bereziek zergapetutako produktuen kontabilitatea eraman beharko dute, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa medio, kontabilitateko idazpenak elektronikoki emanaz, Foru Agindu honek ezarritako edukia, epeak eta prozedura betez.

2. Kontabilitateak zerga berezien xede diren produktuen eta, hala badagokie, haiek esku-ratzeko behar diren lehengaien prozesuak, mugimenduak eta izakinak islatu beharko ditu, biltegitatu, fabrikatu edo zirkulatzearen ondorioz agertzen diren aldeak barne.

Kontabilitatearen ondorioetarako, Garagardoaren gaineko Zergan ez dira lehengai izango ekoizteko prozesuan sartzen diren osagaiak, fabrikazioaren gaineko zerga berezien xede ez badira eta aterakineko edukirik ez badaukate.

3. Kontabilitatean produktuek lurraldeko erregistroan biltegi osagarri gisa inskribatuta daudenetan duten mugimenduak bilduko dira, Zerga Berezien Erregelamenduaren 65. eta 70. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

4. artikulua. Elektronikoki eman beharreko kontabilitateko idazpenen edukia

1. Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko bete behar diren datuak Foru Agindu honen eranskinean zehaztu dira.

2. Emandako kontabilitateko idazpen bakoitza mugimendu, prozesu edo izakin bati buruzkoa izango da. Nolanahi ere, eragiketa eta mugimendu hauek kontabilitateko idazpen bakar batean eman ahalko dira agregatuta:

a) Prozesu jarraituetako fabrikazio eta transformazio eragiketak hogeita lau orduko aldiei dagokien idazpen bakar batean eman ahalko dira agregatuta, aldi bakoitzaren hasiera lan txandaren aldaketa batekin bat datorrela onartuta.

b) Garagardoa fabrikatzeko eragiketak idazpen bakar batean agregatuta eman ahalko dira egosi, hartzitu eta ontzeko fase bakoitzeko, egosaldi edo, hala badagokio, fabrikazio lote bakoitzari buruz.

c) Alkoholik gabeko garagardoa sartu eta irteteko mugimenduak hileko datu agregatuei buruzko kontabilitateko idazpen bakar batean eman ahalko dira.

d) Garagardoa fabrikatzeko prozesuan aroma edo zaporea emateko erabiltzen diren lehengaiak sartzeko mugimenduak, amaierako produktuari egindako ekarpena 0,5 plato gradutik beherakoa bada, hileko datu agregatuei buruzko kontabilitateko idazpen bakar batean eman ahalko dira.

e) Hidrokarburoak baimendutako establezimenduetan, hala nola «petrolio findegietan», fabrikatzeko, transformatzeko edo autokontsumoko eragiketak produktu eta fabrikazio unitate bakoitzeko hileko datu agregatuei buruzko idazpen bakar batean eman ahalko dira agregatuta.

Arestiko paragrafoan xedatutakoa «kargatutako produktuen gainerako industriak» eta «bioerregaien fabrikak» izenpean zentsatutako gainerako establezimenduei ere aplikatuko zaie, findegien ondoan badaude eta haiekin lotura funtzional eta operatiboa badaukate, bulego kudeatzaileak baimendu ondoren.

f) Edari alkoholodunak txikizkako salmenten ondorioz irteteko mugimenduak, haietan zerga sortzen bada eta salbuespenik aplikatzen ez bazaie, eguneroko idazpen bakar batean eman ahalko dira agregatuta zergapetutako produktu bakoitzeko, nomenklatura konbinatuaren kodearen bidez identifikatuta, Foru Agindu honen eranskineko I.9.3 puntuan xedatutakoaren arabera, edo Foru Agindu honen eranskineko I.9.8 puntuan aurreikusitako erreferentziako kodearen bidez.

g) Edari alkoholduen eta tabako laboreen gordailu fiskal baimendutako establezimenduek egindako salmenten ondorioz irteteko mugimenduak, portu eta aireportuetan badaude eta txikizkako establezimendu gisa baino ez baitihardute, eguneroko idazpen bakar batean agregatuta eman ahalko dira zergapetutako produktu bakoitzeko, Foru Agindu honen eranskineko l.9.8 puntuan aurreikusitako erreferentziako kodearen bidez identifikatuta.

h) Hidrokarburoen gaineko zergaren xede diren produktuei fabrika eta gordailu fiskaletan gehigarriak gehitzeko eragiketak hileko idazpen bakar batean agregatuta eman ahalko dira zergapetutako produktu eta gehigarri bakoitzeko.

5. artikulua. Kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko epeak

1. Idazpenak jasotzen duen mugimendua, eragiketa edo prozesua gertatu eta hurrengo hogeita lau ordu baliodunetan eman behar dira kontabilitateko idazpenak elektronikoki Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bidez.

2. Kontabilitatearen ondorioetarako, hemen adierazitako eragiketak eta mugimenduak une hauetan jo ahalko dira egintzat:

a) Hodi finkoetatik doazen produktuak jasotzaile berari bidaltzea, bidalketa osatzen den unean.

b) Oliobide sareek osatutako gordailu fiskaletan hodi finkoetatik egindako produktuen bidalketak, bidalketa Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren baimean ezarritako baldintzetan osatzen den unean.

c) Itsasontziak hodi finkoen bidez kargatu eta deskargatzeko eragiketak, osatzen diren unean.

d) Produktuak establezimenduan sartu eta irteteko mugimenduak, errepidez doazenak, gertatzen diren unean.

e) Alkoholak gordailu zigilatuko araubidean fabrikatzeko eragiketak, zigilua kentzeko unean, Zerga Berezien Erregelamenduaren 81. artikuluan xedatutako baldintzetan.

3. Hidrokarburoak Foru Agindu honen 4. artikuluko 2. zenbakiko e) letran adierazitako establezimenduetan fabrikatzeko, transformatzeko edo autokontsumoko eragiketetan, eragiketa horiei dagozkien kontabilitateko idazpenak, produktu eta fabrikazio unitateko hileko datu agregatuei dagozkienak, datuek jasotzen duten hilabetea amaitu eta hurrengo zazpi egun baliodunetan eman ahalko dira.

6. artikulua. Kontabilitateko idazpenak zergadunen euskarri informatikoko kontabilitate sistematik elektronikoki ematea

1. 2. artikuluan adierazitako establezimenduen titularrek, zerga bereziek kargatutako produktuen eta haiek eskuratzeko behar diren lehengaien mugimenduak, prozesuak eta izakinak erregistratzen dituen euskarri informatikoko kontabilitate sistema bat dutenek, hura erabiltzea hautatu ahalko dute kontabilitatea eraman eta kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko.

Kasu horretan, zerga bereziek kargatutako produktuen kontabilitatea, Zerga Berezien Erregelamenduaren 50. artikuluan aurreikusitakoa, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bitartez elektronikoki emandako kontabilitateko idazpenek osatuko dute.

2. Aukera hori elektronikoki erabili beharko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bitartez, eragina izan behar duten egutegiko urtea hasi aurretik. Nolanahi ere, jarduerak egiten hasitako egutegiko urtean hasitako establezimenduek, jardueraren hasieraren aitortpena aurkezteko unea hautatu ahalko dute, eta aukera horrek jarduera hasi denetik izango du eragina.

Kontabilitate liburuak eramateko sistema hori aukeratzen dutenek erabiltzen den egutegiko urtean eutsi beharko diote aukera horri, gutxienez.

Aukera hurrengo urteetarako luzatu dela ulertuko da, horri uko egiten ez bazaio. Uko egiteko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari jakinarazi beharko zaio, elektronikoki, eragina izan behar duen egutegiko urtea hasi aurretik.

3. Establezimenduen titularrek, euskarri informatikoko kontabilitate sistema bat izanda, kontabilitatea haren bidez eraman eta idazpenak ere elektronikoki haren bidez ematea hautatu balute, mugimenduak, eragiketak, prozesuak eta izakinak 5. artikuluan adierazitako epeetan erregistratu beharko dituzte kontabilitate sistema horretan, eta bost egun balioduneko epea izango dute haiek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bidez elektronikoki emateko.

Horretarako, emateko epea idazpena establezimenduaren kontabilitate sisteman Foru Agindu honen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera erregistratu den egunetik zenbatuko da. Kontabilitateko idazpena Foru Agindu honen 5. artikuluan ezarritako epean erregistratu ez balitz, epe hori amaitzen denetik zenbatuko da emateko epea.

4. Establezimenduen titularrek, euskarri informatikoko kontabilitate sistema bat edukita, kontabilitatea eramateko eta idazpenak elektronikoki emateko hura erabiltzea hautatu balute, abuztua baliogabetzat jo ahalko dute emateko betebeharrak horren ondorioetarako bakarrik.

5. Kontabilitatea establezimenduaren euskarri informatikoko kontabilitate sistematik eramateko, titulu honetan jasotako xedapenak bete beharko dira, kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko epeari dagokionez izan ezik, 3. zenbakian xedatutakoaren arabera egingo baita hori.

7. artikulua. Kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko baldintza orokorrak

1. Hauek eman ahalko dituzte elektronikoki kontabilitateko idazpenak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bitartez:

a) Kontabilitateak jasotzen duen establezimenduaren titularrak berak.

b) Zergadunen borondatezko ordezkariak, Arabako Foru Aldundiak une bakoitzean ezarritakoaren arabera ahalordeak edo eskumenak dauzkatenek.

2. Zerga bereziek zergapetutako produktuen kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Zerga berezien kontabilitateko idazpenak dagozkion establezimenduaren titularrak identifikazio fiskaleko zenbaki bat (IFZ) izan beharko du eta, aurkeztu aurretik, urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuak, zergadunen eroldari eta horren inguruko betebeharrak buruzkoak, 2. artikuluan aipatzen duen zergadunen zentsu bakarrean identifikatuta egon.

Establezimenduaren titularrak, oro har, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan identifikatzeko onartutako edozein bide elektronikoki erabili ahalko du idazpenak emateko.

b) Borondatezko ordezkarien bidez ematen direnean, era berean, identifikazio fiskaleko zenbaki bat (IFZ) izan beharko dute eta, aurkeztu aurretik, urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuak, zergadunen eroldari eta horren inguruko betebeharrak buruzkoak, 2. artikuluan aipatzen duen zergadunen zentsu bakarrean identifikatuta egon, a) letran aipatu denez.

Establezimenduaren titularrak bezala, borondatezko ordezkariak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan identifikatzeko onartutako edozein bide elektronikoki erabili ahalko du idazpenak emateko.

8. artikulua. Kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko prozedura

1. Zerga bereziek kargatutako produktuen kontabilitateko idazpenak Arabako Foru Aldundiari emateko modu hauetakoren bat erabili ahalko da:

a) Mezuen truke elektronikokoan oinarritutako web zerbitzuak.

b) Web inprimakia, datuak kontabilitateko idazpen bakoitzeko banaka ematea ahalbidetuko duena.

c) Web inprimakia fitxategiak inportatuz, datuak kontabilitateko idazpen multzo baterako batera ematea ahalbidetuko duena.

Sistema horiek gaituta egongo dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa.

2. Mezuak web zerbitzuen bidez edo fitxategiak inportatuz elektronikoki emanez gero, Arabako Foru Ogasuneko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak onarpenaren erantzun mezua bidaliko du egindako ematearen ziurtagiri gisa.

Onarpen mezua egiaztatzeko 16 karaktereko kode seguru bat izango du, ematearen datuz eta orduaz gain, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak emandako kontabilitate idazpenei esleitutako zenbakia.

Emandako datuak errefusatzuz gero, errefusaren erantzun mezua bidaliko da, errefusatzeko zioekin, behar diren zuzenketak egin eta datuak berriz eman ahal izateko.

Artikulu honetako 1.b) puntuan aurreikusitako web inprimakia erabiltzen bada, egiaztapeneko kode seguru bat itzuliko da, ematearen data eta orduarekin eta Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak emandako kontabilitateko idazpenari esleitutako zenbakiarekin batera. Ematea errefusatzeko balitz, errefusatzeko zioen berri emango da behar diren zuzenketak egin eta datuak eman ahal izateko.

9. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua

Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari zerga bereziek zergape-tutako produktuen kontabilitateko idazpenei buruzko datuak elektronikoki bidaltzeko erabili-tako mezu informatikoak euren edukia zehazten den erregistroaren eremuetara egokituko dira (eranskinean ageri dira eremu horiek), eta haien formatua eta diseinua Arabako Foru Aldun-diaren Interneteko egoitza elektronikoa jasotakoak izango dira.

10. artikulua. Egindako eragiketa eta mugimenduen frogagiriak eta haiei buruzko informa-zioa

1. Foru Aginduaren 2. artikuluan adierazitako establezimenduen titularrek uneoro eduki be-har dute dokumentazio eta informazio hau zerga administrazioaren ikuskapen eta esku hartze zerbitzuen eskura:

a) Establezimenduan egindako fabrikazio eta/edo transformazio eragiketen frogagiriak eta haiei buruzko informazioa, hasiera eta amaierako datak, erabilitako lehengaiak eta produktuak, eskuratutako produktuak eta lan agiriaren edo fabrikazio edo transformazio eragiketaren zen-bakia zehaztuta.

b) Mugimenduen, prozesuen eta izakinen frogagiriak, arauzkoak eta komertzialak, eta zerga bereziek kargatutako produktuen eta haiek eskuratzeko behar diren lehengaien inbentarioen xehetasuna.

c) Foru Agindu honen 4. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera, kontabilitateko ida-zpen bakar batean agregatuta eman diren eragiketa guztien frogagiriak eta banako informazioa.

d) Kontabilitateko idazpenak Foru Agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera ema-teko erabilitako euskarri informatikoko kontabilitate sistema, hala badagokio.

2. Egindako mugimendu, produktu eta izakinak, prozesu eta eragiketei buruzko frogagiriak eta informazioa eta, hala badagokio, kontabilitate sistema, ikuskapen eta, hala badagokio, esku hartze zerbitzuen eskura egingo dira establezimenduan bertan zerga administrazioak dagokion likidazioaren bidez zerga zorra zehazteko duen eskubidea iraungitzeko epea amaitu ez den bitartean.

Horretarako, eska daitezkeen agiriak euskarri informatikoak eduki ahalko dira establezimen-dutik bertatik luzamendurik gabe kontsulta badaitezke.

II. TITULUA

Fabrikazioaren zerga bereziek zergapetutako produktuen kontabilitatea eramateko beste bide batzuk

11. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramatera behartuta ez dauden establezimenduek kontabilitatea eramateko bideak

Zerga berezien araudiak eragindako establezimenduen, Foru Agindu honen 2. artikuluan sartuta ez dauden horien, titularrek, zerga bereziek kargatutako produktuen kontabilitatea euskarri informatikoko edo paperezko liburu orriduneko kontabilitate sistema bat erabiliz eramateko betebeharra beteko dute.

Paperezko liburuak erabiliz gero, haietan edozer idatzi aurretik, liburu horiek establezimenduari dagokion bulego kudeatzailean aurkeztu beharko dira haiek gaitzeko.

Halaber, zerga berezien kontabilitatea euskarri informatikoko kontabilitate sistema baten bidez eramatea hautatu ahalko dute, Zerga Berezien Erregelamenduaren 50. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eta ondorioekin, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez; kasu horretan, Foru Agindu honen I. tituluan aurreikusitako arau, baldintza, epe eta prozedura guztiak aplikatuko dira.

12. artikulua. Kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateko aukera erabiltzea edo uko egitea

Zerga berezien araudiak eragindako establezimenduek, kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramatera behartuta ez daudenean, haren bidez eramatea hautatu ahalko dute, Zerga Berezien Erregelamenduaren 50.3 artikuluan xedatutako baldintzetan.

Hura hautatu zein hari uko egiteko, dagokion zentsu eredia aurkeztuko da elektronikoki.

13. artikulua. Ardoaren eta edari hartzituen egileak eta destilatzaile artisauak

1. Ardoaren eta edari hartzituen egileek eta destilatzaile artisauek, oro har, euskarri informatikoko kontabilitate sistema bat erabili behar dute, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez, zerga bereziek kargatutako produktuen eta haiek eskuratzeko lehengaien kontabilitatea eramateko, Foru Agindu honen I. tituluan xedatutakoaren arabera.

2. Ardoaren eta edari hartzituen egileek, euren urteko ekoizpenaren bolumena, titular diren establezimendu guztiena zenbatuta, egutegiko urtean 100.000 litrotik gorakoa ez bada, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren baimena jaso ahalko dute, eskatu ondoren, kontabilitate hori abenduaren 28ko 708/2017 Foru Aginduak, ardoa eta edari hartzituen fabrika eta zerga gordailuetako eragiketen aitortpena egiteko 553 eredia eta horien kontabilitatea biltzen duen euskarri informatikoa modu telematikoa aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzekoak, 3. artikuluan adierazitako moduan eramateko.

Horretarako, urteko ekoizpen bolumena aurreko egutegiko urtekoa izango da. Aurreko egutegiko urtean jarduera egutegiko urtea baino epe laburragoan garatu balitz, ekoizpen bolumena urtera igoko da. Jarduera hasi bada, ekoizpen bolumen zenbatetsia hartuko da kontuan.

3. Destilatzaile artisauek Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren baimena jaso ahalko dute zerga bereziek kargatutako produktuen kontabilitatea paperezko liburu orridunak, Zerga Berezien Erregelamenduaren 96. artikulua aipatzen dituenak, erabiliz eramateko, behartuta egonda, kasu honetan, lehengaien eta produktuen liburu bat eramatera, zeinean fabrika sartu eta fabrikazio prozesuan erabilitako lehengaiak, eskuratutako pattarrak eta fabrikatik irteerako pattarrak erregistratuko baitituzte, haien zerga araubidea eta emandako zirkulazio agiria adieraziz.

14. artikulua. Kontabilitatearen xedea eta edukia

Zerga berezien araudiak eragindako establezimenduen, Foru Agindu honen 2. artikuluan sartu ez direnen, titularrek, zerga horiek kargatutako produktuen kontabilitate bat eraman beharko dute, eragiten dieten prozesuak, mugimenduak eta izakinak islatzen dituen, biltegiratu, erabili edo zirkulatzean agertutako aldeak barne, halako moldez non produktuak, epigrafeak eta zerga araubideak bereizten diren.

Zehazki, hauek zerga bereziek zergapetutako produktuen kontabilitatea eraman beharko dute:

1. Zerga Berezien Erregelamenduaren 3. artikulua aipatzen dituen produktu konpentsatzailen fabrikatzaileek kontabilitate bat eraman beharko dute, zeinean etete araubidean jasotako produktuen kantitateak idatziko baitira, data, hornitzailea eta agiri administratibo elektronikoen erreferentzia, produktu konpentsatzailen fabrikazio prozesuan egunero erabili edo kontsumitutako kantitateak, fabrikatutako produktu konpentsatzailak eta haietatik esportatutako kantitateak eta esportazio agiria adieraziz.

2. Alkohol guztiz desnaturalizatuaren erabiltzaileek, partzialki desnaturalizatutako alkoholaren erabiltzaileek, laborategi farmazeutikoen eta osasun arretako zentroek, Zerga Berezien Erregelamenduaren 74., 75., 76. eta 77. artikuluek, hurrenez hurren, aipatzen dituztenek, jasotako eta erabilitako alkoholaren mugimenduak islatzen dituen kontabilitate bat eraman beharko dute.

3. Hurrenez hurren, Zerga Berezien Erregelamenduaren 75. bis eta 75. ter artikuluek aipatzen dituzten alkoholdu azpiproduktuak edo hondakin ateratzen dituzten establezimenduek, euren kontabilitatean, zerga bereziak kargatutako azpiproduktu edo hondakin horien mugimenduak islatzen dituzten kontabilitatea eraman beharko dute, haien eduki alkoholikoa adieraziz.

4. Zerga Berezien Erregelamenduaren 87. artikulua aipatzen dituen botilatzeko planta independenteek jasotako edari deribatuen eta botilaratutako edari deribatuen mugimenduen kontabilitatea eraman beharko dute.

5. Aireratzeko eta lurrartzeko instalazio pribatuak erabili ohi dituzten aireontzien titularrek, Zerga Berezien Erregelamenduaren 101.4 artikulua aipatzen dituenek, zerga salbuetsita jasotako erregaia eta haiei emandako erabilera islatzen dituen kontabilitate bat eraman beharko dute.

6. Zerga Berezien Arauaren 51.2 artikuluko c), d), e) eta g) letretan eta 4. zenbakian ezarritako salbuespenen onuradunek, Zerga Berezien Erregelamenduaren 103. artikulua aipatzen dituenek, zerga salbuetsita jasotako produktuak eta haiei emandako erabilera islatzen dituen kontabilitate bat eraman beharko dute.

7. Zerga Berezien Erregelamenduaren 106. artikulua aipatzen dituen txikizkariak hauek erregistratu beharko dituzte: tasa murriztua aplikatuta jasotako gasolioa eta euren banku kontuetan hobaridun gasolio-txartelen bidez egindako salmentengatik edo hobaridun gasolio txeeke sarreragatik egindako ordainketak. Erregistro horretan gasolio harrerak idatziko dira, dagozkien administrazio agiri elektronikoen Erreferentziazko Administrazio Kodea (ARC) adierazita. Halaber, tasa murriztuarekin zuzenean egindako gasolio emateak islatuko dira, gasolio hornigailuaren kontagailuak ematen duen irakurketa adieraziz. Emate horiek hobaridun gasolio txartelak ematen dituzten erakundeek bidalitako aldizkako ordainketa laburpenekin eta kreditu erakundeetatik jasotako ordainketa kontuen aldizkako laburpenekin justifikatuko dira.

8. Itsasontzei Zerga Berezien Arauaren 52.b) artikuluan aurreikusitako hidrokarburoen gaineko zerga itzultzeko eskubidea sortzen duten hornidurak egiten dituzten hornidura guneen titularrek, Zerga Berezien Erregelamenduaren 110. artikulua aipatzen dituenek, kontabilitate bat eraman beharko dute, zeinean hauek islatuko baitira: jasotako gasolioa, haien zirkulazioa babestu zuen administrazio agiri elektronikoaren Erreferentziazko Administrazio Kodea (ARC) aipatuta, eta egindako hornidurak, egindako emate agiriak aipatuz.

9. Zerga Berezien Erregelamenduaren 40.2 artikuluko d) letrak eta 11.2 artikuluko c) letrak, hurrenez hurren, aipatzen dituzten fabrika edo gordailu fiskal batetik kanpo mugatutako eremuan titularrek zerga bereziek kargatutako produktuen mugimenduak islatzen dituen kontabilitate bat eraman beharko dute, babesten dituen zirkulazio agiria adieraziz.

15. artikulua. Kontabilitatea eramateko arauak

Zerga berezien araudiak eragindako establezimenduen titularrek, Foru Agindu honen 2. artikuluan jaso ez direnek, Zerga Berezien Erregelamenduaren 50. artikuluko 4. zenbakian ezarritako epe eta baldintzetan erregistratu beharko dituzte kontabilitateko idazpenek jasotako eragiketak.

16. artikulua. Kontabilitatea eta haren frogagiriak gorde eta administrazioaren eskura jartzeko betebeharra

Zerga berezien araudiak eragindako establezimenduen titularrek, Foru Agindu honen 2. artikuluan jaso ez direnek, ikuskaritza eta, hala badagokie, esku hartze zerbitzuen eskura eduki beharko dituzte kontabilitatea, euskarri informatikoan zein paperean, eta kontabilitateko idazpenen frogagiri guztiak, arauzkoak eta komertzialak.

Lehenengo xedapen gehigarria. Ardoaren eta edari hartzituen egileek kontabilitateko idazpenak ematea

1. Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergaren zerga tasa zero den bitartean, ardogile edo bestelako edari hartzituen egile baimendutako establezimenduen titularrek Foru Agindu honen I. tituluari jasotako xedapenak bete beharko dituzte kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateko, berezitasun hauek ere kontuan hartuz:

a) Kontabilitatearen ondoretarako, ardoa, muztioa eta egutegiko hilabetearen egindako edari hartzituak egiteko eragiketak egin diren hileko azken egunean egintzat jo ahalko dira.

b) Ardoa, muztioa eta edari hartzituak egiteko eragiketei eta lehengaien sarrerei buruzko kontabilitateko idazpenak hileko kontabilitateko idazpen bakar batean eman ahalko dira agregatuta.

2. Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergaren zerga tasa zero den bitartean, ardogile edo bestelako edari hartzituen egile baimendutako establezimenduen titularrek Foru Agindu honen 6. artikuluko 3. zenbakian kontabilitateko idazpenak emateko aurreikusitako epea mugimendua, eragiketa edo prozesua egin eta hurrengo hileko azken egun baliodunean amaituko da.

3. Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergaren zerga tasa zero den bitartean, Foru Agindu honen 6. artikuluko 3. zenbakiak ardogile baimendutako establezimenduentzat kontabilitateko idazpenak emateko xedatutako epea, haien urteko ekoizpen bolumena egutegiko urtean 100.000 litrotik gorakoa ez bada, titular diren establezimendu guztiena zenbatuta, data hauetan amaituko da:

a) abenduko azken egun baliodunean, aurreko abuztu, irail, urri eta azaroan egindako prozesu, mugimendu eta eragiketei dagokienez.

b) abuztuko azken egun baliodunean, aurreko abendu, urtarril, otsail, martxo, apiril, maiatz, ekain eta uztailan egindako prozesu, mugimendu eta eragiketei dagokienez.

Horretarako, urteko ekoizpen bolumena aurreko egutegiko urtekoa izango da. Aurreko egutegiko urtean jarduera egutegiko urtea baino epe laburragoan garatu balitz, ekoizpen bolumena urtera igoko da. Jarduera hasi bada, ekoizpen bolumen zenbatetsia hartuko da kontuan.

Bigarren xedapen gehigarria. Urtean 50.000 hektolitrotik gorako ekoizpena ez duten garagardo fabrikek kontabilitateko idazpenak ematea

Garagardo fabrika baimendutako establezimenduen titularrek, egutegiko urteko ekoizpenaren bolumena 50.000 hektolitrotik gorakoa ez bada, kontabilitatea euskarri informatikoko euskarriko kontabilitate sistema erabiliz Foru Agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera eramateko, Foru Agindu honen I. tituluari jasotako xedapenak bete beharko dituzte, berezitasun hauek ere kontuan hartuz:

a) Lehengaiak sartzeko eragiketei dagozkien kontabilitateko idazpenak agregatuta eman ahalko dira hileko kontabilitateko idazpen bakar batean.

b) Foru Agindu honen 6. artikuluko 3. zenbakian kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko xedatutako epea mugimendua, eragiketa edo prozesua egin eta hurrengo hileko azken egun baliodunean amaituko da.

Horretarako, urteko ekoizpen bolumena aurreko egutegiko urtekoa izango da. Aurreko egutegiko urtean jarduera egutegiko urtea baino epe laburragoan garatu balitz, ekoizpen bolumena urtera igoko da. Jarduera hasi bada, ekoizpen bolumen zenbatetsia hartuko da kontuan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Urtean 100.000 litrotik gorako ekoizpena ez duten tarteko produktuen egileek kontabilitateko idazpenak ematea

Alkoholik gabeko tarteko produktuen egile baimendutako establezimenduen titularrek, egutegiko urteko ekoizpenaren bolumena 100.000 litrotik gorakoa ez bada, kontabilitatea euskarri informatikoko euskarriko kontabilitate sistema erabiliz Foru Agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera eramateko, Foru Agindu honen I. tituluan jasotako xedapenak bete beharko dituzte, berezitasun hauek ere kontuan hartuz:

a) Lehengaiak sartzeko eragiketei dagozkien kontabilitateko idazpenak agregatuta eman ahalko dira hileko kontabilitateko idazpen bakar batean.

b) Foru Agindu honen 6. artikuluko 3. zenbakian kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko xedatutako epea mugimendua, eragiketa edo prozesua egin eta hurrengo hileko azken egun baliodunean amaituko da.

Horretarako, urteko ekoizpen bolumena aurreko egutegiko urtekoa izango da. Aurreko egutegiko urtean jarduera egutegiko urtea baino epe laburragoan garatu balitz, ekoizpen bolumena urtera igoko da. Jarduera hasi bada, ekoizpen bolumen zenbatetsia hartuko da kontuan.

Laugarren xedapen gehigarria. Tabako gordinaren lehen transformazioko establezimenduak

Tabako gordinaren lehen transformazioa egiten den establezimenduek, Zerga Berezien Erregelamenduaren 129. artikulua aipatzen dituenek, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bitartez eramango dute zerga bereziek zergapetutako produktuen kontabilitatea, Foru Agindu honen I. tituluan xedatutakoaren arabera, instalazioan sartutako tabako gordina eta irtendako lortutako produktua bakarrik islatuz.

Bosgarren xedapen gehigarria. Gas naturala

1. Gasbide sare batez osatutako gordailu fiskal edo gas naturalaren eta beste gas produktu batzuen industria erazle baimendutako titularrek gas naturalaren mugimenduei dagozkien kontabilitateko idazpenak ematean, «m+3» balantzeak gas sistemaren kudeaketa teknikoari buruzko arauen arabera itxi ondoren finkatutako informazioa jasoko dute haietan.

2. Aurreko zenbakian kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko xedatutako epea «m+3» balantzeak gas sistemaren kudeaketa teknikoari buruzko arauen arabera itxi eta hurrengo hileko azken egun baliodunean amaituko da.

3. Foru Agindu honen 10. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, gas naturalaren mugimenduetan egindako mugimendu, eragiketa eta prozesuak frogatzeko informazio izango dira, bereziki, gas sistemaren kudeatzaile teknikoan dauden agiriak eta informazioa.

Lehenengo xedapen iragankorra. 2020ri dagozkion kontabilitateko idazpenak eman beharra

1. Kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bidez eraman behar duten establezimenduek 2021eko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarteko aldiari eman ahalko dituzte 2020ri dagozkion kontabilitateko idazpenak.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoari heltzen diotenek Zerga Berezien Erregelamenduaren 50. artikuluan xedatutako kontabilitateko betebeharrak 2020ko abenduaren 31 arte bete beharko dituzte 2019ko abenduaren 31n indarrean dagoen artikuluko horren idazketaren arabera, eta Erregelamenduaren 44. artikuluko 5. zenbakian aurreikusitako eragiketa aitortzea aurkeztu beharko dute.

Bigarren xedapen iragankorra. 2020ri dagozkion kontabilitateko idazpenak emateko epea

Foru Agindu honen 6. artikuluko 3. zenbakian 2020an egindako mugimendu, eragiketa, prozesu eta izakinei dagozkien kontabilitateko idazpenak emateko xedatutako epea zortzi egun balioduneko izango da.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta gelditzen dira foru agindu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapenak.

Amaierako laugarren xedapena. Indarrean jartzea

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 27a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

ERANSKINA

I. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez eman beharreko kontabilitateko idazpenen edukia

Zerga bereziek kargatutako produktuen kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez euskarri informatikoko kontabilitate sistema medio eraman behar duten establezimenduen titularrek, eta zerga berezi horien kontabilitatea egoitza horren bidez eramatea aukeratzen duten establezimenduek, elektronikoki eman beharko dituzte kontabilitateko idazpenak, dagozkien mezu elektronikoen bidez, eranskin honetan definitutako edukiarekin eta jarraibideen arabera beteta.

1. Operadorea

1.1 Establezimenduaren titularraren IFZ.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Establezimenduaren titularraren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) adieraziko da.

1.2 Establezimenduaren JEK.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Establezimenduaren titularraren Jarduera eta Establezimendu Kodea (JEK) adieraziko da.

2. Kontabilitateko idazpena

2.1 Barne erreferentzia zenbakia.

Kasu batzuetan bakarrik.

Establezimenduaren titularrak kontabilitateko idazpenak emateko euskarri informatikoko bere kontabilitate sistema erabiltzea hautatzen badu, Foru Agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, sistema horretan kontabilitateko idazpena egiteko unean sortzen den barne erreferentzia zenbakia adierazi beharko du.

Barne erreferentzia zenbakiak bakarra izan beharko du establezimendu bakoitzeko.

2.2 Aurreko idazpen zenbakia.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kasu hauetan beteko da:

a) deuseztatutako aurreko idazpenak ordeztzen dituzten idazpen berrien altak.

b) Zerga Berezien Erregelamenduaren 27. eta 38.1 artikuluetan aurreikusitako establezimenduan produktuak birsartzeko eragiketei dagozkien kontabilitateko idazpenak.

Arabako Foru Aldundiak deuseztatutako kontabilitateko idazpenari esleitutako idazpen zenbakia edo birsartutako produktuek establezimendutik egindako irteera erregistratzeko erabili zena adieraziko da, hura egoitza elektronikoen bitartez emateko unean.

3. Data

3.1 Mugimenduaren data.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Kontabilitatean jasotako produktuen mugimendua edo prozesua gertatzen den data adieraziko da, UUUU/HH/EE formatuan adierazita.

3.2 Kontabilitateko erregistroaren data.

Kasu batzuetan bakarrik.

Establezimenduaren titularrak kontabilitateko idazpenak emateko euskarri informatikoko bere kontabilitate sistema erabiltzea hautatzen badu, Foru Agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, idazpena sistema horretan erregistratzen den data adieraziko da.

4. Mugimenduaren datuak

4.1 Mugimendu mota.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Kontabilitateko idazpenean jasotako mugimendu mota adieraziko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako argitaratutako tauletan jasotako aukeren arabera.

4.2 Gutxiagoko aldeei buruzko informazio gehigarria.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilitateko mugimendu mota biltegiko gutxiagoko aldea edo fabrikazioko gutxiagoko aldea denean beteko da.

Kontabilizatutako gutxiagoko alde mota adieraziko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako argitaratutako tauletan aurreikusitakoetatik dagokion balioaren arabera.

4.3 Zerga araubidea.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Kontabilitateko idazpenak jasotako produktuei aplikatu beharreko zerga araubidea adieraziko da, aukera hauen arabera:

- Lotu gabea.
- Etengarria.
- Salbuetsia.
- Tasa osoan sortutako zerga.
- Tasa murriztuan sortutako zerga.
- Kanarietako tasan sortutako zerga.

5. Fabrikatzeko/ eskuratzeko eragiketen datuak

Datu multzo hau kasu batzuetan bakarrik behar da.

Datu multzo hau beteko da kontabilizatutako mugimendu mota hauetakoren bat denean:

- Fabrikatua/Eskuratua.
- Autokontsumoa/Erabilia.
- Fabrikazioko gutxiagoko aldeak.
- Fabrikazioko gehiagoko aldeak.

Kontabilitatearen ondorioetarako, hidrokarburoen gaineko zergaren eremuan, erregelamenduz onartutako hidrokarburoen markatzaileak/tratatzaileak eta nahasketak gehitzeko eragiketarik sartuko dira.

Kontabilitatearen ondorioetarako, alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren eremuan, guztiz zein partzialki desnaturalizatzeko eragiketarik sartuko dira.

Kontabilitatearen ondorioetarako ontziratze eta/edo botilaratzeko eragiketarik sartuko dira.

5.1 Eragiketa mota.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Egindako eragiketa mota adieraziko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako argitaratutako tauletatik dagokion kodea adieraziz.

5.2 Eragiketaren zenbakia.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Enpresak egindako eragiketari esleitutako zenbakia adieraziko da.

5.3 Fabrikazio unitatearen deskribapena.

Kasu batzuetan bakarrik.

Fabrika baimendutako establezimenduetan beteko da, haietan fabrikazio unitate batzuk badaude, Zerga Berezien Arauaren 4.18 artikuluan definitutako fabrikazio eragiketetatik, establezimenduan egindakoei dagokienez.

Fabrikazio edo transformazio eragiketa, edo autokontsumoa egin den fabrikazio prozesuaren unitatea adieraziko da.

Fabrikazio edo transformazioko aldean mugimenduetan gutxiagoko aldea edo gehiagoko aldea gertatu den fabrikazio prozesuaren unitatea jasoko da.

5.4 Fabrikazio unitatearen kodea.

Kasu batzuetan bakarrik.

Fabrika baimendutako establezimenduetan beteko da, haietan fabrikazio unitate batzuk badaude, Zerga Berezien Arauaren 4.18 artikuluan definitutako fabrikazio eragiketetatik, establezimenduan egindakoei dagokienez.

Establezimenduak eragiketa egin den fabrikazio unitateari esleitutako kodea adieraziko da.

Fabrikazio edo transformazioko aldean mugimenduetan gutxiagoko aldea edo gehiagoko aldea gertatu den fabrikazio prozesuaren unitateari esleitutako kodea jasoko da.

6. Frogagiria

Datu multzo hau kasu batzuetan bakarrik behar da.

6.1 Frogagiri mota.

Kontabilitateko idazpenean frogagiri erabiltzen den agiri edo euskarri mota adieraziko da.

Kontabilitatutako eragiketa zerga bereziek zergapetutako produktuen zirkulazio bat bada, zirkulazio hori babesten duen zirkulazio agiria adieraziko da.

Kontabilitateko idazpenak jasotzen duen eragiketan produktuen zirkulaziorik gertatzen ez bada, kontabilitateko idazpenaren agiria, frogagiria edo euskarria adieraziko da.

Ez da beharrezkoa izango datu multzo hori betetzea kontabilitateko idazpena idazpen bakar batean agregatuta emandako zenbait mugimenduri buruzkoa denean, Foru Agindu honetan ezarritako kasuetan.

Aukera hauen arabera jasoko da agiri mota:

Administrazio agiri elektronikoa (E-DA).

Presazko agiri osagarria.

Zirkulazio agiria.

Bideko salmenten zirkulazio agiria.

Entrega egiaztagiria.

Inportazioaren AAB.

Bulego kudeatzailearen baimena.

Esku hartze zerbitzuaren eginbidea.

Fabrikazio edo lan agiria.

Lanaren aitortpena.

Beste batzuk: Kontabilitateko idazpenaren beste edozein agiri edo euskarri.

6.2 Frogagiri zenbakia.

Kontabilitateko idazpenaren euskarri den frogagiriaren zenbakia adieraziko da, xehetasun hauek jasota:

Administrazio agiri elektronikoa (E-DA): zerga administrazioak barneko edo Batasunaren barruko EMCS sisteman esleitutako Erreferentziako administrazio kodea (ARC).

Presazko agiri osagarria: Agiriari esleitutako tokiko erreferentzia zenbakia.

Zirkulazio agiria: Establezimenduak esleitutako zirkulazio agiriaren erreferentzia zenbakia.

Bideko salmenten zirkulazio agiria: Zerga administrazioak zirkulazio agiriaren zirriborroari esleitutako erreferentzia kode elektronikoa.

Entrega egiaztatagiria: Aireontzien hornidurak frogatzeko emandako entrega egiaztatagiriei esleitutako zenbakia, Zerga Berezien Erregelamenduaren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Inportazioaren AAB: Inportazioaren AABari esleitutako MRNa.

Bulego kudeatzailearen baimena: Bulego kudeatzailearen baimen zenbakia.

Esku hartze zerbitzuaren eginbide data.

Fabrikazio edo lan agiriaren zenbakia.

Lan aitortpenaren zenbakia.

Beste batzuk: Kontabilitateko idazpenaren agiri edo euskarriaren identifikazioa.

7. Jatorria/helmuga

Datu multzo hau kasu batzuetan bakarrik behar da.

Datu multzo hau beteko da kontabilitateko idazpenak jasotzen duen mugimendua establezimendutik egindako produktuen sarrera edo irteera bat denean.

Ez da beharrezkoa izango datu multzo hori betetzea kontabilitateko idazpena idazpen bakar batean agregatuta emandako zenbait mugimenduri buruzkoa denean, Foru Agindu honetan ezarritako kasuetan.

Inportazioko eragiketetan, zirkulazioa aduana agiri batek babestuta egiten denean, dagozkion aduana izapideak zein aduanatan egin diren identifikatuko da.

Esportazioko eragiketetan esportazio aitortpena zein aduanatan aurkeztu den identifikatuko da.

7.1 Jatorria/helmuga: identifikazio agiri mota.

Bidaltzailearen (produktuen sarrerak) edo jasotzailearen (produktuen irteerak) identifikazio agiri mota jaso beharko da, kodifikazio honen arabera:

Deskribapen	Balioak
Espainiako IFZ edo AIZ	1
Batasunaren barruko BEZ IFZ	2
Beste batzuk	3

Kontabilitateko idazpenak jasotzen duen mugimenduaren jasotzaileak/bidaltzaileak Espainiako IFZ edo AIZ badauka, hura jasoko da.

Espainiako IFZrik ez badauka baina Espainia ez den Europar Batasuneko beste estatu kide baten zerga agintariek esleitutako BEZ IFZ bat badauka, titular den BEZ IFZren zenbakia jasoko da.

Aduana identifikatu behar den inportazio edo esportazioaren kasuan, dagokion kodea islatuko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako bildutako informazioan jasotako kodifikazioaren arabera.

Beste kasu batzuetan, jasotzailea/bidaltzailea identifikatu ahal izateko beste edozein zenbaki jasoko da.

7.2 Jatorria/helmuga: identifikazio agiriaren zenbakia.

7.1 laukian 1 balioa bete bada, bidaltzaile edo jasotzailearen IFZ jasoko da.

7.1 laukian 2 balioa bete bada, bidaltzaile edo jasotzaileari Espainia ez beste edozein estatu kidek esleitutako BEZ IFZ adieraziko da.

7.1 laukian 3 balioa bete bada, bidaltzailea edo jasotzailea identifikatu ahal izateko beste edozein zenbaki adieraziko da.

7.3 Jatorria/helmuga: sozietatearen izena.

Mugimenduaren jasotzailearen (establezimendutik irtendako produktuak) edo bidaltzailearen (establezimenduan sartutako produktuak) sozietatearen izena adieraziko da.

7.4 Jatorria/helmuga: JEK/SEED zk.

Mugimendu motaren eta zerga araubidearen arabera, indarreko araudia betez, jasotzaileak edo bidaltzaileak JEK edo SEED zenbaki bat eduki behar duten mugimenduetan beteko da.

Barneko lurralde eremuko mugimenduetan, hala badagokio, mugimenduaren jasotzailearen (establezimendutik irtendako produktuak) edo bidaltzailearen (establezimenduan sartutako produktuak) JEK zenbakia adieraziko da.

Barnekoa ez den Batasuneko lurralde eremuko mugimenduetan, hala badagokio, mugimenduaren jasotzailearen (establezimendutik irtendako produktuak) edo bidaltzailearen (establezimenduan sartutako produktuak) SEED zenbakia adieraziko da.

8. Zerba berezia jasanaraztearen datuak

Datu multzo hau kasu batzuetan bakarrik behar da.

Datu multzo hau osorik beteko da establezimendutik produktuak irteteko mugimenduen kasuan, establezimenduaren titularrak haiengatik zerga berezia jasanaraztera behartuta balego, Zerga Berezien Arauaren 14. 2 eta Zerga Berezien Erregelamenduaren 18. artikuluetan xedatutakoaren arabera, araubide etengarriko fabrikazioa, biltegitratzea edo transformazioa inoren kontura egiten denean.

Datu horiek beteko dira zerga tasa osoan zein tasa murriztuan jasanarazitako eragiketetan, zein salbuespen bat aplikatzen den kasuetan.

Zerga berezia jasanarazi zaion pertsona edo erakundearen datuak adieraziko dira, Zerga Berezien Arauaren 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.1 Zerga berezien jasanarazpenaren jasotzailea: identifikazio agiri mota.

Jasanarazpenaren jasotzailearen identifikazio agiri mota jaso beharko da, kodifikazio honen arabera:

Deskribapen	Balioak
Espainiako IFZ edo AIZ	1
Batasunaren barruko BEZ IFZ	2
Beste batzuk	3

Jasanarazpenaren jasotzaileak Espainiako IFZ edo AIZ badauka, hura jasoko da.

Jasanarazpenaren jasotzaileak Espainiako IFZrik ez badauka baina Espainia ez den Europar Batasuneko beste estatu kide bateko zerga agintariek esleitutako BEZ IFZ bat badauka, titular den BEZ IFZren zenbakia jasoko da.

Beste kasu batzuetan, jasanarazpenaren jasotzailea identifikatu ahal izateko beste edozein zenbaki jasoko da.

8.2 Zerga berezien jasanarazpenaren jasotzailea: identifikazio agiriaren zenbakia.

8.1 laukian 1 balioa bete bada, jasanarazpenaren jasotzailearen IFZ jasoko da.

8.1 laukian 2 balioa bete bada, jasanarazpenaren jasotzaileari Espainia ez beste edozein estatu kidek esleitutako BEZ IFZ adieraziko da.

8.1 laukian 3 balioa bete bada, jasanarazpenaren jasotzailea identifikatu ahal izateko beste edozein zenbaki adieraziko da.

8.3 Zerga berezien jasanarazpenaren jasotzailea: sozietatearen izena.

Jasanarazpenaren jasotzailearen sozietatearen izena jasoko da.

9. Produktua

9.1 Zerga epigrafea.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilitateko mugimenduari dagozkion produktuak fabrikazioaren gaineko zerga berezien eremu objektiboan sartuta daudenean beteko da.

Kontabilitateko mugimendua dagokien zerga bereziek zergapetutako produktuei dagokien zerga epigrafea islatuko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zerga bereziak kontabilizatzeko prozedurarako argitaratutako tauletan jasotako kodifikazioaren arabera.

9.2 Epigrafearen kodea.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilitateko mugimenduari dagozkion produktuak fabrikazioaren gaineko zerga berezien eremu objektiboan sartuta daudenean beteko da.

Kontabilitateko mugimendua dagokien zerga bereziek zergapetutako produktuen epigrafearen kodearen gakoa islatuko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zerga bereziak kontabilizatzeko prozedurarako argitaratutako tauletan jasotako kodifikazioaren arabera.

9.3 NC kodea.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Kontabilitateko mugimendua jasotzen duen produktuari dagokion NC kodea adieraziko da, uztailaren 23ko 2658/1987 (EEE) Erregelamendua, arantzel eta estatistiken nomenklaturari eta aduanetako arantzel bateratuari buruzkoak, ezarritakoa, eranskinaren indarreko idazketaren arabera.

Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren eremu objektiboan sartutako produktuen kasuan, NC kodea 8 digituen mailan adieraziko da.

Ardoaren eta edari hartzituen gaineko eta tarteko produktuen gaineko zergen eremu objektiboan sartutako produktuen kasuan, NC kodea adieraziko da, hurrenez hurren, Zerga Berezien Arauaren 27. eta 31. artikuluetan jasotako digitu mailarekin.

Garagardoaren gaineko eta tabako laboreen gaineko zergaren eremu objektiboan sartutako produktuetan NC kodea 4 digituen mailan adieraziko da.

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien eremu objektiboan sartuta ez dauden produktuen kasuan, NC kodea 8 digituren mailan adieraziko da, alkoholik gabeko garagardoa izan ezik, 4 digituen mailan islatuko baita bera.

Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zergen eremuan diharduten establezimenduetan kontabilitateko idazpena epigrafe beta eta epigrafe kode bera, NC kode bana eta Foru Aginduaren eranskineko 9.8 puntuan definitutako produktu erreferentzia bakarra dauzkaten produktuei buruzkoa denean, egoera hori adieraziko da «BATZUK» kodea betez.

9.4 Gakoa.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilitateko mugimenduan jasotako produktuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako argitaratutako produktuen gakoen tauletan jasotako produktuak direnean beteko da.

Zerga Berezien Arauaren 32. artikulua aipatzen dituen tarteko produktuen kasuan, gainera, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako argitaratutako tauletan bildutako produktu elaboratuari dagokion gakoa adieraziko da.

9.5 Kantitatea.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Kantitatea adieraziko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako argitaratutako tauletan produktuari dagokion epigrafearen arabera aurreikusitako neurri unitatean adierazita.

Zerga bereziaren zerga oinarria produktuaren bolumenak osatzen duen produktuen kasuan, kantitatea zehazteko zergaren zerga oinarria zehazten den tenperaturaren arabera adierazi beharko da.

9.6 Neurri unitatea.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Kontabilitateko idazpenean jasotako produktuaren arabera, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako argitaratutako tauletan aurreikusitako neurri unitateen kodea adieraziko da.

9.7 Produktuaren deskribapena.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Kontabilitateko idazpenari dagokien produktuen deskribapen komertziala adieraziko da.

Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergak kargatutako produktuen kasuan, produktuen izena islatuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 110/2018 (EE) Erregelamenduak, edari espiritutsuen adierazpen geografikoa definitu, izendatu, aurkeztu, etiketatu eta babesteari buruzkoak, aurreikusitako definizioen arabera.

9.8 Produktuaren erreferentzia.

Aukerakoa.

Establezimenduak kontabilitateko idazpenean jasotako produktuei esleitutako produktu erreferentziaren zenbakia edo kodea adieraziko da.

9.9 Gradu alkoholiko bolumetrikoregana.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilizatutako produktuak alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien kargapean badaude, alkohol hutsaren bolumen kopurua erregistratuko da, 20° zentigraduko tenperaturan, produktuaren 100 bolumenetan dagoena tenperatura horretan, hamarren birekin adierazita.

9.10 Alkohol hutsaren kantitatea.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilizatutako produktuak alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren kargapean badaude dagoen alkohol hutsaren kantitatea erregistratuko da, gehienez hiru hamarrenekin adierazita.

9.11 Dentsitatea.

Kasu batzuetan bakarrik.

Alkohola fabrikatzean, kontabilitateko idazpenean jasotako produktuak lehengai gisa erabilitako lekaleetatik edo bestelako substantzia almidoidun edo azukredunetik lortutako muztio edo zuku hartituak direnean, dentsitatea adieraziko da, KGM/LTR-tan adierazita, gehienez hiru hamarrenekin.

Garagardoa fabrikatzean, kontabilitateko idazpenean jasotako produktuak lehengai erabilitako muztioak direnean, haien dentsitatea adieraziko da, KGM/LTR-tan adierazita, gehienez hiru hamarrenekin.

Kontabilitateko idazpenean jasotako produktuak hidrokarburoak direnean eta haien zerga bereziaren zerga oinarria produktuaren bolumenak osatzen badu, 15° zentigraduko dentsitatea adieraziko da, KGM/LTR-tan adierazita, hiru hamarrenekin.

9.12 Berotze ahalmena.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilitateko idazpenean jasotako produktuak hidrokarburoak direnean eta haien zerga bereziaren zerga oinarria produktuaren berotze ahalmenak osatzen badu, tonako berotze ahalmen gordina adieraziko da, gigajouletan (GJ), gehienez hiru hamarrenekin.

9.13 Aterakinaren ehunekoa.

Kasu batzuetan bakarrik.

Garagardoa fabrikatzean, kontabilitateko idazpenean jasotako produktuak lehengaiak direnean, aterakin naturaleko ehuneko edukia adieraziko da, kilogramoak aterakin zati kilogramoak lehengai egitearen emaitza dena, gehienez hiru hamarrenekin adierazita.

9.14 Kilogramoak aterakin.

Kasu batzuetan bakarrik.

Garagardoa fabrikatzean, kontabilitateko idazpenean jasotako produktuak lehengaiak direnean, haietan dagoen aterakin naturalaren kantitatea adieraziko da, kilogramotan, gehienez hiru hamarrenekin.

9.15 Batez besteko plato gradua.

Kasu batzuetan bakarrik.

Garagardoa fabrikatzean, kontabilitateko idazpenean jasotako produktua hartitzera pasatutako muztioa edo egiten ari den garagardoa denean, batez besteko plato gradua adieraziko da, gehienez hiru hamarrenekin adierazita.

9.16 Gradu azetikoa.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilitateko idazpenean jasotako produktua ozpina denean, gradu azetikoa adieraziko da, 100 mililitro ozpinetan dauden azido azetikoaren gramoen arabera neurtuta, gehienez hiru hamarrenekin adierazita.

9.17 Tabakoaren produktuaren pisu garbia.

Kasu batzuetan bakarrik.

Tabako laboreen gaineko zergaren kargapeko produktuak direnean, pisu garbia adierazi beharko da, kilogramotan, hamarren birekin, pisuaren 100eko 14ko hezetasuneko edukian oinarrituta.

9.18 Tabako laborearen balioa.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilizatutako produktuak tabako laboreen gaineko zergaren kargapean badaude, haien balio globala jaso beharko da, eurotan, hamarren birekin, penintsulan edo Balear Uharteetan dauden tabako eta zigilu dendetako publikoarentzako salmenta prezioaren arabera kalkulatuta, «Estatuko Aldizkari Ofizial»ean tabako labore bakoitzarentzat argitaratutako prezioa hartuta.

9.19 Tabako laborearen publikoarentzako salmenta prezioa.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilizatutako produktuak tabako laboreen gaineko zergaren kargapean badaude, penintsulan edo Balear Uharteetan dauden tabako eta zigilu dendetako publikoarentzako gehieneko salmenta prezioa adierazi beharko da, «Estatuko Aldizkari Ofizial»ean tabako labore bakoitzarentzat argitaratutakoa.

9.20 Salmenta unitatearen deskribapena.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilizatutako prezioak tabako laboreen gaineko zergaren kargapean badaude, salmenta unitate bakoitzaren deskribapena jaso behar da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan zerga bereziak kontabilizatzeko prozedurarako argitaratutako tauletan aurreikusitako salmenta unitate moten arabera.

9.21 Salmenta unitatearen edukia.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilizatutako prezioak tabako laboreen gaineko zergaren kargapean badaude, salmenta unitate bakoitzean dagoen kantitatea jaso beharko da, zigarro, zigarrotxo edo zigarreten kopuruan edo gramotan adierazita hamarren birekin biltzeko tabako xehearen eta gainerako tabako laboreen kasuan.

10. Bilgarriak

10.1 Bilgarri mota.

Kasu batzuetan bakarrik.

Kontabilizatutako produktuak alkoholaren edo edari alkoholodunen gaineko zerga bereziek kargatutako produktu bukatuak badira, bilduta doazen bilgarri motaren kodea adieraziko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan argitaratutako taulek zehaztutako bilgarri moten arabera.

Zerga Berezien Erregelamenduaren 61.2 artikulua aipatzen dituen garagardo fabrika baimendutako establezimenduek ez dute datu multzo hori bete beharko.

10.2 Bilgarriaren edukiera.

Aukerakoa.

Kontabilizatutako produktuak alkoholaren edo edari alkoholodunen gaineko zerga bereziek kargatuta badaude, bilgarriaren edukiera adieraziko da litrotan, hiru hamarrenekin adierazita.

10.3 Bilgarri kopurua.

Aukerakoa.

Kontabilizatutako produktuak alkoholaren edo edari alkoholduen gaineko zerga bereziek kargatuta badaude, kontabilitateko idazpenak jasotako eragiketaren bilgarrien guztizko kopurua adieraziko da.

11. Oharrak

Aukerakoa.

Eremu libre horretan kontabilitateko idazpena azaldu edo argitzeko datuak edo informazioa jaso ahalko dira.

II. Kontabilitateko idazpenak deuseztatzea

Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari elektronikoki eman zaizkion kontabilitateko idazpenak deuseztatu ahalko dira administrazioak zerga zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko duen eskubidearen preskripzio epea amaitu ez den bitartean, egoitza elektronikoa medio datu hauek jaso behar dituen mezu elektroniko bat igorritz:

1. Operadorea

Nahitaezko datu multzoa.

1.1 Establezimenduaren titularraren IFZ.

Establezimenduaren titularraren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) adieraziko da.

1.2 Establezimenduaren titularraren JEK.

Establezimenduari esleitutako jarduera eta establezimendu kodea.

2. Deuseztatutako kontabilitateko idazpena

2.1 Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko idazpen zenbakia.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak deuseztatutako kontabilitateko idazpenari egoitza elektronikoen bidez emateko unean esleitutako zenbakia.

3. Deuseztatzeko idazpena

3.1 Barne erreferentzia zenbakia.

Kasu batzuetan bakarrik.

Establezimenduaren titularrak kontabilitateko idazpenak emateko euskarri informatikoko bere kontabilitate sistema erabiltzea hautatzen badu, Foru Agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, establezimenduaren euskarri informatikoko kontabilitate sisteman deuseztatzeko idazpenari esleitutako erreferentzia zenbakia adieraziko da.

3.2 Kontabilitateko erregistroaren data.

Kasu batzuetan bakarrik.

Establezimenduaren titularrak kontabilitateko idazpenak emateko euskarri informatikoko bere kontabilitate sistema erabiltzea hautatzen badu, Foru Agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, deuseztatzeko idazpena establezimenduaren kontabilitate sisteman erregistratzen den data adieraziko da.

3.3 Deuseztatzeko zioa.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Deuseztapenaren zioa beteko da, taula honetan jasotako balioetatik dagokiona adieraziz:

Deskribapen	Balioak
Zenbakizko errorea	1
Idazpen bikoiztua	2
Beste zio bat	3

4. Oharrak

Aukerakoa.

Eremu libre horretan azaldu edo argitzeko datuak edo informazioa jaso ahalko dira.